BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

121

ERABAKIA, 2011ko abenduaren 12koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuarena. Honen bidez, Administrazio Kontseiluaren 2011ko urriaren 3ko Erabakia betetzeko, Gipuzkoa Mendebaldea Eskualdeko jarduerak era ordenatuan uzteko eta operazioak ixteko trantsizio aldia arautzen da.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak 2011ko urriaren 3an Gipuzkoako Osasun Barrutian Debagoieneko, Debabarreneko eta Goierri-Urola Garaiko erakunde sanitario integratuak sortzeko erabakia hartu du, ondorioz, Gipuzkoa Ekialdea Eskualdearen antolaketa aldatzen da, aurrerantzean Gipuzkoa Eskualdea deituko dena, eta Gipuzkoa Mendebaldea Eskualdea osasun-zerbitzuen erakundea kentzen da.

Erabaki honen helburua Erakunde Sanitario Integratuak izenez ezagutzen ditugun egiturak ezartzea dakarten antolakuntza-eraldaketa berriak gauzatzeko jarduerak martxan jartzea da, betiere Bidasoako Erakunde Sanitario Integratuaren funtzionamenduaren esperientzia aintzat hartuta. Bidasoako Erakunde Sanitario Integratua 2010eko abenduaren 13ko Administrazio Kontseiluaren erabakiz sortu zen.

Antolaketa berri honen xedeei erantzunez, hiru osasun-erakunde berri sortzen nahi dira Gipuzkoako Osasun Barrutian, hainbat baliabide integratuz eta lehendik zeuden erakundeak kenduz edota eraldatuz; esaterako, Lehen Mailako Barruti bakarra osatu nahi da lehen zeuden bi erakundeen baliabideak erabilita.

Erabakian azaldutakoa betetzeko, ondokoa ezartzen da:

1.– Erabaki honek ezartzen dituen baliabide-integrazioaren eta eraldaketaren ondorioz, osasun-zerbitzuetako hiru erakunde berri sortzen dira Gipuzkoako Osasun Barrutian: Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratua, Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratua eta Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratua.

Era berean, Gipuzkoa Eskualdea erakunde berria sortzen da Gipuzkoako Osasun Barrutian, erabaki honek ezartzen dituen baliabide-integrazioaren eta eraldaketaren ondorioz.

2.– Debagoieneko Ospitalea, Mendaroko Ospitalea eta Zumarragako Ospitalea ospitaleko zerbitzu-erakundeak kentzen dira eta ospitale horietako giza baliabideak, baliabide materialak eta antolakuntzakoak hiru erakunde sanitario integratu berri horietan txertatuta geratzen dira, hurrenez hurren.

Halaber, Gipuzkoa Ekialdea Eskualdea eta Gipuzkoa Mendebaldea Eskualdea kentzen dira, eta zerbitzu-erakunde horietako giza baliabideak, baliabide materialak eta antolakuntzakoak hiru erakunde sanitario integratu berri horietan txertatuta geratzen dira, hurrenez hurren, edo, hala badagokie, Gipuzkoa Eskualdea osasun-erakunde berrian.

3.– Erabaki honek ezartzen duen baliabide-integrazioa, honela egingo da:

– «Debagoieneko ESI»-ak honako hauek hartzen ditu: Debagoieneko Ospitalea eta Bergara, Leintz-Gatzaga, Oñati eta Arrasateko lehen mailako atentzioko unitateak (desagertutako Gipuzkoa Mendebaldea Eskualdea erakundekoak).

– «Debabarreneko ESI»-ak honako hauek hartzen ditu: Mendaroko Ospitalea eta Ermua, Eibar, Torrekua, Elgoibar, eta Debako lehen mailako atentzioko unitateak (desagertutako Gipuzkoa Mendebaldea Eskualdea erakundekoak).

– «Goierri-Urola Garaiko ESI»-ak honako hauek hartzen ditu: Zumarragako Ospitalea eta Azpeitia, Azkoitia, Legazpia, Zumarraga, Lazkao, Ordizia, eta Beasaingo lehen mailako atentzioko unitateak (desagertutako Gipuzkoa Mendebaldea Eskualdea erakundekoak).

– «Gipuzkoa Eskualdea»-k honako hauek hartzen ditu: Tolosa, Andoain, Villabona, Ibarra eta Alegiako lehen mailako atentzioko unitateak (desagertutako Gipuzkoa Mendebaldea Eskualdea erakundekoak), bai eta desagertutako Gipuzkoa Ekialdea Eskualdea erakundea.

Bestalde, erakunde berri horiek sortzeak zuzendaritza- eta kudeaketa-organoen eta aholkularitza- eta partaidetza-organoen barne-egitura egokitu beharra dakar, estatutu sozialetan ezarrita dagoen diseinuari jarraituz eta, ahal den neurrian, Euskal Osasun Publikoaren Gobernu Onaren Koderako Aholku Batzordearen gomendioetatik hartutako hainbat alderdi aintzat hartuta.

Era berean, erabakia aplikatzeak trantsizio aldi bat ezartzea eta arautzea eskatzen du beharrezko baliabide guztiak egokitu eta integratzeko, informatikako tresnak doitzeko, arlo guztietan (giza baliabideak, aurrekontuak eta diruzaintza, biltegien kudeaketa eta logistika, etab.), Gipuzkoa Mendebaldea Eskualdeko operazioak ixtea bermatzeko, eta bere jarduerak era ordenatuan dagozkien erakundeen esku uzteko, eragindako eremu bakoitzean aplikatzekoa den araudiaren esparruan.

Trantsizio aldi horri behar bezala ekiteko, egitura jakina duen (beharrezko baliabide pertsonalak eta teknikoak) eta arduradun batek gainbegiratu eta koordinatuko duen zentro kudeatzaile-likidatzaile bat antolatu behar da; trantsizio aldian behar bezala funtzionatzea bermatzeko, sortzen diren beharrei erantzungo die zentro horrek.

Zentro kudeatzaile-likidatzaile hori OS00 Erakundeari (erakunde zentrala) atxikiko zaio, eta beharrezko baliabide pertsonalak eta teknikoak zuzendari nagusiak emandako bidezko ebazpenen bitartez ezarriko dira.

Zentro kudeatzaile-likidatzaileak, bere arduradunaren bidez, hainbat arlotan (giza baliabideak, aurrekontuak eta diruzaintza, biltegien kudeaketa eta logistika, etab.) egin behar dituen jarduera guztien legezko euskarria, egungo Gipuzkoa Mendebaldea Eskualdeko Zuzendaritzari esleitutako eskumenak Osakidetzako zuzendari nagusiak behar bezala bereganatuta bermatuko da. Ondorioak Administrazio Kontseiluaren 2011ko urriaren 3ko Erabakia indarrean sartzen denetik ezarritako trantsizio aldia amaitu arte izango ditu, betiere, inguruabar tekniko-ekonomikoek, juridikoek eta lurraldeari dagozkionek eragiten badute.

Egun erabilgarri dauden baliabideak eta informatika erabat egokitzeko eta integratzeko behar den denbora ikusirik, Administrazio Kontseiluaren 2011ko urriaren 3ko Akordioa indarrean jartzen denetik, trantsizio aldia ezin izango da 2012ko ekainaren 30a arte baino gehiago luzatu.

Erabaki hau hartzeko berariazko gaikuntzak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren estatutu sozialetako 4.2 artikuluan du oinarri juridikoa, hain zuzen Administrazio Kontseiluari ematen baitzaio erakundeari esleitutako baliabideak berrantolatzeko eskumena; horretarako, egun dauden zerbitzuetan beharrezko aldaketak egingo ditu.

Hori dela eta, hona hemen hartu den

ERABAKIA:

Lehenengoa.– Administrazio Kontseiluaren 2011ko urriaren 3ko Erabakia behar bezala aplikatzeko eta burutzeko trantsizio aldi bat ezartzea, hau da, erabaki hau indarrean jartzen denetik 2012ko ekainaren 30era.

Bigarrena.– Trantsizio aldian zentro kudeatzaile-likidatzaile bat ezartzea OS00 Erakundeari (erakunde zentrala) atxikia, trantsizio aldian behar bezala funtzionatzea bermatzeko sortzen diren beharrei erantzuteko.

Hirugarrena.– Zentro kudeatzaile-likidatzaileak behar dituen baliabide pertsonalak eta teknikoak zuzendari nagusiak emandako bidezko ebazpenen bitartez ezarriko da.

Laugarrena.– Zentro kudeatzaile-likidatzaileak behar bezala funtzionatzeko behar dituen eskumenak Osakidetzako zuzendari nagusiak emango ditu, Gipuzkoa Mendebaldea Eskualdeko Antolaketa Zuzendaritzaren egungo eskumenak behar bezala bereganatuta, eta Administrazio Kontseiluaren 2011ko urriaren 3ko Erabakia indarrean sartzen denetik ezarritako trantsizio aldia igaro arte (2012ko ekainaren 30a) izango ditu ondorioak.

Bosgarrena.– Ogasun eta Ekonomia Saileko Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzari eta interesa izan dezaketen Osakidetzako zerbitzuetako erakundeei emango zaie erabaki honen berri.

Seigarrena.– Erabaki hau Administrazio Kontseiluaren 2011ko urriaren 3ko Erabakia ondorioak izaten hasten den egunean berean sartuko da indarrean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den kontuan hartu gabe eta hori eragotzi gabe.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduren 12a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluko lehendakaria,
JAVIER RAFAEL BENGOA RENTERÍA.